

Emakumeak mojatarako ote?

La presencia de la mujer en la Iglesia ha conocido la vida religiosa institucional de Ordenes y Congregaciones. Ha sido una de las formas de afirmación femenina dentro de las Iglesias cristianas, a lo largo de siglos y pueblos, superando siempre dificultades, a veces con modos de vida forzados, en ocasiones con éxitos notables.

Emakumeak, oro har, bereziki zaila izan du gizartean leku eroso eta gidari bat irabaztea; azkeneko hamarkada luzeetan egoera hori gainditzea izan da feminismo kristauaren ahalegin nagusia. Emakumearen Elizako presentzia, garrantzizkoa izanik askotan, ez da izan inola ere gizonetzkoen maila berekoa, eta noski aldarrikorra izan da, eta bihurtu historiko deigarriak ezagutu ditu. Horregatik, komeni da erlijiosei buruz hitz egiten hastean zenbait oinarriko arazo gogoraraztea.

Mojak ere historiatik

Lehen mendeetako Kristautasunean emakumeak izan zuen lekuaz zer esanik franko dago, leku adierazgarria izan baitzuten bertan emakumeek. IV. Mendetik aurrera Eliza kristauetan gizonetzkoen Erlijioso-Erakundeak (Institutuak) sortu zirenean, laster agertu ziren mojak ere, bakardadean nahiz taldean biziko zirenak. Emakumeak lekuren bat irabaziz joan ziren eliz antolaera berri horretan, eta ondoko mendeetako Erlijioso-Institutuen iraganak ongi erakusten du norainoko pisua eta zeregina izan zituzten emakumezkoek Erakunde horien garapenean.

Erlijioso-Institutuetako mojen historia, kristau herrialdeetako emakumearen historia sozialeko kapitulu bat da, hainbat aldiz aurrerakoa ere izan zena, eta sarritan emakumearen gizarteko arazo larriei partez bederen erantzun nahi izan ziena, betiere garaian garaiko erlijiotasunaren eta gizartearen ispiluz elkarik.

Emakume erlijiosoen (mojen) historia ezin daiteke, emakumezkoen historia orokor eta eliztarretik berezita begiratu: emakumeak Monasterio eta Komentuetara joan zirenean ere emakumeen gainerako egoera historiko orokorretatik zetozen beti: bere familia eta herriko emakumezkoen biziera ezagututa, inguruko genero-(des)balioak jasorik, eta gizarteko mentalitate jakin batetik zetozela.

Monasterio eta Komentuen sorrera ez zen izaten gertakari eliztarra bakarrik, esanahi eta zeregin sozialak zituen, eta Erlijioso-Etxe edo Kongregazioak sortzean, interes sozialak ere tartean egoten ziren, ia beti gizarte osoari zegoen interes orokorrak, eta zenbaitetan baita jakineko klase sozialen eta Erakundeenak ere (Koroa, Noblezia, Udalak eta abar).

Ordenetako tradizioen indarra ukatu gabe, garaian garaiko antolamendu sozial eta Erakunde



zibil eta eliztarrek emakumearen eliz eta erlijioso-betekizuna gertutik baldintzatu izan dute. Jite eta jardunbide ezberdinetako mojak egon dira, Ekialdean Espiritu-Maisuen ondoan lehenengo "Espiritu-Maistrak" agertu zirenetik (Melania, †410) Teresa Kalkutakoa-ganaino (†1997). Tartean, 1500 urtetan, une zail eta distiratsuak ezagutu zituzten emakumezkoen Ordenek.

Iragan ikusgarria dago mojen bizialdi horretan.

Hainbat izen gogoratzu

Gizonezko fundatzaileen ondoan emakume leinargiak egon izan dira: San Agustinen aurretik ere bazeuden *birjina* deituak Afrikan (Kartago, 349), eta Agustinek bere arreba jarri zuen monasterio haietako baten buru, geroago San Benitok Eskolastika (tc. 547) bezala. San Frantziskoren ondoan, Sta. Klarak (†1253) idatzizuen emakumezkoentzako Erregela.

Erdi Aroko moja gorai patuen artean jarri behar dira zenbait izen handi, erlijiotasunean ez ezik jakitean eta politikan ere eragin propioa izan zutenak: Hildegard Bingen-go (†1179), mistikari, botanikari, musikari eta idazlea; Brijida Suediakoa (†1373), Eskandinavia eta Erromaren arteko zubi historikoa, fundatzailea eta "erromes, mistikari eta politikari" bezala aurkeztu izan dena, eta Katalina Sienakoa (†1380), mistikari, idazle eta Mendebaldeko Zisma konpontzeko halako lanak egin zituen.

Ez zen orduan agortu hori, eta Aro Moderno-Garaikideetan emakume anitz aurki dezakegu ekinbide instituzional berriak irekitzen: Tere-

sa Avilakoa (†1582) karmeldarren artean (kasu honetan gizonezkoen Erreforma ere Joan Gurutzekoarekin batera eginenez), Italian Angela Merici (†1540: urtsulatarren Lagundia), Frantzia Jeanne de Lestonnac (†1640: Mariaren Lagundia), Ingalaterran Mary Ward (†1645), etab. Eta guretzat munta handikoa izandako Karitateko Alaben Lagundian gogora dezakegu Louise de Marillac (†1660).

XIX-XX. mendeetan

Otoitzean, zerbitzu-sozialean eta hein batean emakumearen askapen-bidean mojen Institutuek inoiz baino lan handiagoa burutu dute azken bi mendeetan. Burututako lana uka ezina eta miressgarria izan da: hain zuzen, bi mendeetan izan duen tamainagatik, berori Institutuen historiako "Emakumearen Aroa" izan dela esan du historialariren batek.

Oraintsu, Vatikanon II.aren ondoren, emakumezko Institutuei ere jatorrizko iturrietara itzultzeko eskatu zaie, eta aldi berean, gisa berri batean eguneratzea. Horretarako, aldagai berriak agertu dira: heziketan osotasun aberatsagoa jasotzen dute erlijiosek, oro har gizartearen txertatuagoak ageri zaizkigu, ekinbide pertsonalei bide erosoagoa ireki zaie, Erakundearen egitura-tze juridikoa berriztatu egin da, etab.

Iraganari eta Eliza osoari begirako ohar hauek hurrengo batean osatu beharko ditugu zerbait, Euskal Herriko emakume eta mojen argibide zehatzagoren bat emateko.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610-273580